Egilea: *Karmele Perez Urraza. Didaktika eta Eskola Antolakuntza Saila. UPV/EHU.*

# TAULA KONPARATIBOA: HIRU PARADIGMAK HEZKUNTZAN

| | **TEKNIKOA (positibista)** | **PRAKTIKOA (interpretatzailea)** | **KRITIKOA (dialektikoa)** |
|---|---|---|---|
| FILOSOFIA | Jaiotzatik **gizaki ezinduak** gara (adaptatugabeak) gure animaliatasunagatik. Maila hori gaindutu dugu **kultura**ren bitartez (hizkuntzak, ekonomiak, harremanak,... direla medio elkartruke soziala sortzen baitute). Gure animaliatasuna aldakorra da eta kulturala (gure hutsun biologikoak gainditzeko). Azal berezia garatu behar izan dugu (etxea, erropa,..)<br><br>Behar dugun **EZAGUTZA**k **RAZIONALTASUN TEKNIKO**ri edo **INSTRUMENTALA**ri erantzun behar dio, biologikoki gutxiegitasunak baititugu. Instrukzioaren bitartez jasotzen dugu artisautzarako ezagutza instrumentala edo teknikoa. | Gizakiak gizartekoak gara, eta mundua eta beste gizakideak gure jomuga ditugu.<br><br>Bizitza= erabakiak etengabe hartzea da.<br><br>Behar dugun ezagutza **EZAGUTZA PRAKTIKOA** (argitzaile edo interpretatzailea) da.<br>Ezagutza hori dela medio erabiki egokienak eta onenak hartzeko gai izango gara.<br>Ezagutza praktikoa izan arren balore nobleetan edo zintzoetan oinarriturik (herritar onak izateko, Ilustrazioaren garaian oinarritua) | Gizartean bizi garelako gizaki modura balore batzuren garrantziaz jabetu gara:<br>- justizia<br>- askatasuna<br>- elkartasuna<br>...<br><br>Behar dugun **EZAGUTZA**k edo **RAZIONALTASUN**ak **KRITIKOA** izan beharko du, aldaketa sozialera bultzatuko gaituena, **adostasun arrazional**etara heldu ondoren. |
| ZIENTZIA | Ideologiarik EZ<br><br>Dena Arrazionaltasuna<br>Objetikbotasuna<br>Enprikotasuna<br>Frogagarritasuna<br><br>**POSITIBISMOA** = razionalitatea-enpiriko-analitiko | Ideologia<br><br>Subjektibitatea<br>Subjektibotasuna = gizakiaren askatasunik absolutoena da.<br>(Ezagutuz, interpreta dezakegu, nahiz eta subjetiboki izan)<br><br>**INTERPRETATZAILEA** | Ideologia<br><br>Subjektibotasuna<br>(Ezagutuz ulertu, ulertuz interpretatu, interpretatuz kritikatu, eta, dialektikoki kritikatuz aldatu)<br><br>**KRITIKOA** |
| POLIK | ZIENTIFIKOTASUNA<br>Neutraltasuna nagusi<br>(zientifikoa ez baita politikoa) | ASKATASUNA (= Balore absolutoa) erabakiak libreki hartzeko; a priori, askatasuna ez baitago)<br><br>(Ilustrazioan= Liberté, Igualité, Fraternité) | Askatasunik eza<br>a priori: ez dago askatasunik, nahi duguna askatasuna bera lortzea da.<br>Interes bakarra = EMANTZIPAZIOA |
| HEZKUNTZA | Hezkuntza eta beren elementuak gestiogintza eraginkor gisa ulertzen dira.<br><br>*Ingenieritza soziala*<br><br>**TEKNOKRAZIA**<br>(egina dagoena irakasten da, makina perfektua balitz bezala, zientzia eta teknikan oinarrituz)<br><br>ARRAZOI INSTRUMENTALA edo TEKNIKOA<br><br>**HELBURUEN PEDAGOGIA** | Hezkuntzaren elementuak elkar-komunikazioan eragiten dute, eta interpretazio subjektiboak (libreki hartuta) testuinguru jakin bati baino ez du hartzen kontutan.<br><br>*Eskola konpresiboa*<br><br>**MERITOKRAZIA**<br>(aukera berdinen eskolan, gehien destakatzen duena garailea da = meritoak)<br><br>ARRAZOI ILUSTRATUA<br><br>**IKERKETA-EKINTZAREN PROZEDUREN PEDAGOGIA**<br>(Stenhouse dugu garratsitsuena baina pedagogia praktikoa eta kritikoaren mugan gelditu da) | Hezkuntzak auto-ulertetara, kritikotasunera, eta autodeterminazioara bultzatu behar du.<br><br>*Eskola emanzipakorra, askatzailea*<br><br>**ERRESISTENTZIA** = kritika soziala da, hau da, gizaki eta gizartearen aldaketarako baloreetan oinarrituriko hezkuntza.<br><br>ARRAZOI MORAL EMANTZIPAKORRA<br><br>**PEDAGOGIA KRITIKA EDO SOZIO-KRITIKA**.<br>Paulo Freire dugu honen aintzindaria.<br>Stenhouse-tik edan dute Elliot-ek, Carr-ek , eta Kemmis-ek |
| IRRAKASLEA | Irakaslea neutrala da = instruktorea<br><br>Gelan **instrukzioa** eta obedientzia irakasten dira, makina perfektua balitz bezal. | Irakasleak egoera neutrala gorde behar du, eta parte hartuko balu ikasleen neurri berberean hartulo luke.<br><br>Gelan instrukizoa baino **elkarrizketa** sortu behar da:<br>-erabakiak har ditzaten gai eta informazio desberdinen arabera.<br>- eztabaidatu dezaten egoera desberdinetara helduz (baina adostasunik lortu gabe)<br>- ikasleak heldu daitezen arazoak argitzen dituzten egoeratara agian adostasunera heldu gabe.<br><br>Irakasleak prozeduran eta estrategietan kalitatea bermatuko duela zaindu behar du.<br><br>Irakaslea ikertzailea da: (bere profesionaltasuna hedatzen da) :<br>- bere ikasteko eraz<br>- hori ikertzeko teknikak eta trebetasunak garatzen ditu<br>- ekinez frogatzen du teoria. | Irakaslea ez da neutrala<br><br>**Adostasuna** lortzen saiatzen dira, irakaslea ez baita neutrala eta bestalde ez da neutralki agertzen.<br><br>Adostasuna= gertaera jakin bat ikertzeko hartzen den erabaki amankomuna. Akordio arrazional batzuetara heldu beharra dago inarrizko baloreetan gure praxiaren eta gure bizitzaren gidari izan daitezen. |